

Galdera

Nola esango zenukete euskaraz *lectura en voz alta*?

Erantzuna

boz gora irakurtzea / boz gorako irakurketa / ahots gora irakurtzea / ahots gorako irakurketa / ozen irakurtzea.

1/ Testu gehienetan, eta *Irakurketa Plana* aipatu behar dugu lehenik eta behin erreferentzia den aldetik, **boz gorako irakurketa** agertzen da, Baita Euskaltermen ere, 4 ^{Eu} ponderazio-marka jartzen ez dion arren. Nafarroako *Hezkuntzako Hiztegian*, berriz, **ahots gorako irakurketa** dakar. Biak zuzenak dira, *boz* eta *ahots* sinonimoak dira eta. Bestalde, testuingurua zein den, izen-egitura (**boz gorako irakurketa / ahots gorako irakurketa**) edo aditz-egitura (**boz gora irakurtzea / ahots gora irakurtzea**) aukeratuko dugu. Gure aburuz, aditz-egitura naturalagoa da gure hizkuntzan, baina irizpide teknikoak hartaraturik, gerta liteke termino bakarra erabili beharra sentitzea; hala izanez gero, **boz gorako irakurketa** da terminorik estandarizatuena; baina *boz* eta *ahots* sinonimoak direnez, **ahots gorako irakurketa** ere berdin erabil daiteke.

2/ [EUSKADIKO IRAKURKETA PLANA](#) (2018)

- https://bideoak2.euskadi.eus/2018/01/31/plan_lector/Euskadiko_Irakurketa_Plana.pdf
- [Euskadiko Irakurketa Plana Txostena \(Word\)](#)

boz gorako irakurketa

3/ Euskalterm Terminologia Banku Publikoak termino bera jasotzen du, baina ez dio 4 ^{Eu} etiketa jarri (termino normalizatua/gomendatua).

<p>es lectura en voz alta Hezkuntza, Pedagogia eu boz gorako irakurketa</p>	<p>es leer en voz alta Hezkuntza, Pedagogia eu boz gora irakurri</p>
--	---

4/ Euskaltzaindiaren Hiztegia biak jasotzen dira, [ahots](#) eta [boz](#)¹; beraz, bata zein bestea erabil daitezke.

5/ Hezkuntza Administrazioiko Hiztegia:

[lectura en voz alta](#): **boz gorako irakurketa**

6/ Hezkuntzako Hiztegia Nafarroako Gobernuak:

[lectura en voz alta](#): **ahots gorako irakurketa / ozen irakurtzea**

7/ Elhuyar Hiztegia:

[en voz alta](#)

ozen, ozenki, goraki, ahots ozenez

habla en voz alta, por favor: ozen hitz egin, mesedez

8/ Labayru Hiztegia:

[en voz alta](#)

1loc. adv.

ozen, ozenki, goraki.

Mis padres cada noche me leían un cuento en voz alta antes de acostarme: Gurasoek gauero-gauero ipuin bat irakurtzen zidaten ozenki oheratu aurretik. (bat)

9/ Zehazki Hiztegia:

[en voz alta](#): **goraki, ozenki**: *lo dijo en voz alta*, ozen, ozenki esan zuen; *soñar en voz alta*, ametsetan hitz egin.